# BOLETÍN Nº 65 - 28 de mayo de 2001

- III. ADMINISTRACION LOCAL DE NAVARRA
    - M E N D I G O R R I A

## Aprobación inicial de la Ordenanza Reguladora de la Organización y Funcionamiento del Registro Municipal de Parejas Estables del Ayuntamiento de Mendigorría

El Pleno del muy ilustre Ayuntamiento de Mendigorría, en sesión celebrada el día 23 de marzo de 2001, aprobó inicialmente la Ordenanza Reguladora de la Organización y Funcionamiento del Registro de Parejas Estables del Ayuntamiento de Mendigorría.

Como consecuencia del referido acuerdo plenario, el texto de dicha Ordenanza, cuyo texto se transcribe a continuación, se somete a información pública, previo anuncio en el BOLETIN OFICIAL de Navarra, y Tablón de Anuncios, por el plazo de treinta días, con el fin de que se pueda examinar el expediente, que está a disposición de los interesados en Secretaría municipal, y, en su caso, formular reclamaciones, reparos u observaciones. De conformidad con lo dispuesto en el artículo 49, c) de la Ley 7/1985, de 2 de abril, de Bases de Régimen Local, según nueva redacción dada por la Ley 11/1999, de 21 de abril, en el caso de que no se presente ninguna reclamación, se entenderá definitivamente adoptado el acuerdo hasta entonces provisional.

Lo que se hace público para general conocimiento.

Mendigorría, veintitrés de marzo de dos mil uno. La Alcaldesa Presidenta, María Asunción Fernández Izu.

ORDENANZA REGULADORA DE LA ORGANIZACION Y FUNCIONAMIENTO DEL REGISTRO MUNICIPAL DE PAREJAS ESTABLES DEL AYUNTAMIENTO DE MENDIGORRIA

Artículo 1.º El Registro Municipal de Parejas Estables del Ayuntamiento de Mendigorría tiene carácter administrativo y en él podrán inscribirse las uniones a que se hace referencia en el artículo siguiente, así como su terminación, en la forma y con los requisitos que se establecen en la presente Ordenanza.

Art. 2.º A efectos de aplicación de esta Ordenanza, y de conformidad a como lo dispone la Ley Foral 6/2000, de 3 de julio, para la igualdad de las parejas estables, se considera pareja estable la unión libre y pública, en una relación de afectividad análoga a la conyugal, con independencia de su orientación sexual, de dos personas mayores de edad o menores emancipados sin vínculo de parentesco por consanguinidad o adopción en línea recta o colateral hasta el segundo grado, siempre que ninguna de ellas esté unida por un vínculo matrimonial o forme pareja estable con otra persona.

Art. 3.º Podrán instar su inscripción en el Registro todas aquellas parejas, con independencia de su orientación sexual, que por su libre y pleno consentimiento hayan constituido una unión de las expresadas en el artículo anterior.

Al menos uno de los miembros de la unión deberá estar empadronado en el Ayuntamiento de Mendigorría por su condición de residente habitual en el mismo.

Asimismo ambos miembros deberán presentar declaración jurada de no estar casados ni inscritos en otro Registro de Parejas Estables.

Art. 4.º La primera inscripción de cada pareja se producirá mediante comparecencia personal y conjunta de las dos personas ante el funcionario encargado del Registro, para declarar la existencia entre ellas de una unión de las definidas en el artículo 2.º de esta Ordenanza.

Art. 5.º No se procederá a practicar inscripción alguna si uno de los comparecientes es menor de edad no emancipado o si son entre sí parientes por consanguinidad o adopción en línea recta o colateral hasta el segundo grado.

Tampoco podrá llevarse a efecto la inscripción si alguno de los comparecientes estuviere afectado por deficiencias o anomalías psíquicas. En este caso deberá aportar dictamen médico de su aptitud para consentir en la constitución de una unión de las definidas en el artículo 2.º de esta Ordenanza.

Asimismo se denegará la inscripción si alguno de los comparecientes estuviese ligado por vínculo matrimonial, forme pareja estable con otra persona o fuese declarado incapaz para contraer matrimonio.

Art. 6.º En el primer asiento podrán hacerse constar cuantas circunstancias relativas a su unión manifiesten los comparecientes. También se podrán inscribir, mediante transcripción literal, los convenios reguladores de las relaciones personales y patrimoniales entre los miembros de la unión.

Los contenidos indicados en el párrafo anterior podrán ser objeto de inscripción en ulteriores comparecencias conjuntas de la pareja.

No obstante, las anotaciones que se refieran a la terminación o extinción de la unión, podrán practicarse a instancia de sólo uno de los miembros de la misma.

Art. 7.º En el Ayuntamiento de Mendigorría todas las uniones inscritas conforme a los requisitos exigidos en la presente Ordenanza recibirán, en aquellas materias que sean de la propia competencia del Ayuntamiento, el mismo tratamiento que las uniones matrimoniales.

Art. 8.º El Registro de Parejas Estables estará a cargo de la Secretaría General del Ayuntamiento. Las inscripciones que se practiquen y las certificaciones que se expidan serán totalmente gratuitas.

Art. 9.º El Registro se materializará en un Libro General en el que se practicarán las inscripciones a que se refieren los artículos precedentes. El libro estará formado por

hojas móviles, foliadas y selladas, y se encabezará y terminará con las correspondientes diligencias de apertura y cierre.

Art. 10. La primera inscripción de cada pareja tendrá el carácter de inscripción básica y al margen de la misma se anotará todo otro asiento que se produzca con posterioridad en el Libro General principal relativo a esa unión.

Art. 11. El Registro tendrá también un Libro Auxiliar, ordenado por apellidos de los inscritos en el que se expresará el número de las páginas del Libro General en las que existan anotaciones que les afecten.

Art. 12. El medio de publicidad formal del Registro es la expedición de certificaciones de los asientos a instancia de cualquiera de los miembros de la unión o de los Jueces y Tribunales de Justicia. El acceso al Registro se efectuará de acuerdo con las normas generales vigentes al respecto.

Código del anuncio: A0103517

[65. ALDIZKARIA - 2001eko maiatzaren 28a]

- III. NAFARROAKO TOKI ADMINISTRAZIOA
  - M E N D I G O R R I A

# Hasierako onespena, bikote egonkorren Mendigorriko Udalaren erregistroaren antolaketa eta funtzionamendua arautzen dituen ordenantzari

Mendigorriko Udalak, 2001eko martxoaren 23ko osoko bilkuran, hasiera batean onetsi zuen bikote egonkorren Mendigorriko Udalaren erregistroaren antolaketa eta funtzionamendua arautzen dituen ordenantza.

Osoko bilkurak hartutako erabaki horren ondorioz, ordenantza horren testua, jarraian ematen dena, jendaurrean jarri da, aldez aurretik Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALean eta iragarki oholean iragarkia jarrita, hogeita hamar eguneko epean jarri ere. Epe horretan espedientea aztertzen ahalko da, interesatuen eskura baitago udal idazkaritzan, eta, hala behar bada, erreklamazio, kexa edo oharrak egin. Erreklamaziorik aurkezten ez bada, anarteraino behin-behinekoa zen erabakia behin betikotzat joko da, Toki Araubidearen Oinarriei buruzko apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 49 c) artikuluan, apirilaren 21eko 11/1999 Legeak emaniko testu berriaren arabera, xedatutakoa betez.

Aditzera ematen da, orok jakin dezan.

Mendigorrian, bi mila eta bateko martxoaren hogeita hiruan. Alkate udalburua, María Asunción Fernández Izu.

BIKOTE EGONKORREN MENDIGORRIKO UDALAREN ERREGISTROAREN ANTOLAKETA ETA FUNTZIONAMENDUA ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA

1. artikulua. Bikote egonkorren Mendigorriko Udalaren erregistroak administrazio izaera du eta bertan hurrengo artikuluak aipatzen dituen elkartzeak, baita haien iraungitzea ere, inskribatzen ahal dira ordenantza honetan ezartzen diren era eta baldintzetan.

2. art. Ordenantza hau aplikatzerakoan, eta Bikote egonkorrendako berdintasun juridikoari buruzko uztailaren 3ko 6/2000 Foru Legeak ezartzen duenari jarraikiz, bikote egonkortzat hartuko da bi pertsonaren arteko elkartze libre eta publikoa, ezkontideenaren pareko afektibitate-harreman batean, sexu-joera kontuan izan gabe, baldin eta adinez nagusi badira edo adingabeko emantzipatu, eta zuzeneko lerroan edo alboko lerroan, bigarren mailaraino, odol- edo adopzio-ahaidetasunik ez badute. Elkartze hori osatzen duten kideek ezin izanen dute bertze pertsona batekin ezkontza-loturarik izan edo bikote egonkorrik osatu.

3. art. Bikoteek, sexu-joera kontuan izan gabe, erregistroan inskribatzeko eskatzen ahal dute, baldin eta haien adostasun libre eta osoarekin aurreko artikuluan azaldutako elkartzeren bat osatzen badute.

Gutxienez, elkartutako kide batek egon beharko du Mendigorriko Udalean erroldaturik, bertan bizi ohi delako.

Halaber, bi kideek zinpeko aitorpena aurkeztu beharko dute, ez daudela ez ezkonduak ezta inskribatuak ere bikote egonkorren bertze erregistroren batean.

4. art. Bikote bakoitzaren lehenbiziko inskripzioa egiteko, bi lagunek batera agertu beharko dute erregistroaz arduratzen den funtzionarioaren aitzinera, haien artean ordenantza honetako 2. artikuluan zehaztutako elkartzeetariko bat osatzen dutela deklaratzeko.

5. art. Ez da inskripziorik eginen bikoteko bat emantzipatu gabeko adingabea bada, edo lerro zuzenean odolkidetasunezko edo adopzio bidezko ahaide badira, nahiz alboko lerrotik bigarren maila bitarteko odolkidetasunezko ahaide badira ere.

Bikoteko batek akats edo anomalia psikikorik badu, orduan ere ez da inskripziorik eginen. Horrelakoetan, medikuaren irizpena beharko dute, ordenantza honetako 2. artikuluan zehaztutako elkartzeetariko bat osatzeko gaitasuna aitortzen diena.

Era berean, ukatu eginen da inskripzioa bikoteko bat ezkondua badago, bertze batekin bikote egonkorra osatzen badu edo ezkontzeko gaitasun gabea deklaratua bada.

6. art. Lehenbiziko idazpena egitean, bikoteak beren arteko elkartzeari buruz adierazten dituen argitasun guztiak agertarazten ahalko ditu. Hitzez hitz idazten ahalko dira elkartutako kideen giza eta ondare harremanak arautzen dituzten hitzarmenak.

Aitzineko lerrokadan aipatutako edukiak geroago ere inskribatu ahalko dira bikoteko biak bertara azaldurik.

Nolanahi ere, elkartzea bukatu edo iraungitzeko oharpenak egiteko aski izanen da kide bakar batek hala eskatzea.

7. art. Mendigorriko Udalean ordenantza honek eskatutako baldintzei jarraikiz inskribaturik dauden elkartze guztiek ezkontza bidezko elkartzeen tratamendu bera izanen dute, Udalaren eskumenekoak diren gaietan.

8. art. Bikote egonkorren erregistroa Udaleko Idazkaritza Orokorraren kargu egonen da. Inskripzioak eta luzatzen diren ziurtagiriak doakoak izanen dira erabat.

9. art. Aitzineko artikuluetan aipatzen diren inskripzioak erregistratzeko Liburu Orokorra erabiliko da. Liburua orri mugigarri, zenbatu eta zigilatuez osatuko da eta irekitzeko eta ixteko eginbideak paratuko dira hasieran eta bukaeran.

10. art. Bikote bakoitzaren lehenbiziko inskripzioak oinarrizko inskripzioaren izaera izanen du eta horren bazterrean geroago Liburu Orokorrean elkartzeari buruz egiten den bertze edozein idazpen agertaraziko da.

11. art. Erregistroak Liburu Lagungarri bat izanen du, inskribatuen deituren arabera ordenaturik, eta bertan adieraziko da Liburu Orokorreko zenbatgarren orrialdean dauden haiekin zerikusia duten oharpenak.

12. art. Erregistroaren publizitaterako modu formala idazpenen ziurtagirien luzapena izanen da, bikoteko edozein kidek, epaileek edo auzitegiek hala eskatu ondoren. Erregistrora jotzeko, horren inguruan indarrean diren arau orokorrei jarraituko zaie.

Iragarkiaren kodea: A0103517